



2022

*Jaietan emakumeen aurkako
indarkeria matxista prebenitzeko
tokiko prozesuak sustatzeko*

GIDA

Izenburua:	"GIDA jaietan emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko tokiko prozesuak sustatzeko 2022"
Argitaratzailea:	EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier 36. 01005 Vitoria-Gasteiz.
Azaleko ilustrazioa:	Uxue Bereziartua Lonbide.
Diseinu grafikoa eta maketazioa:	GEN creativo.

AURKIBIDEA

Sarrera	4
Eraso matxistarik gabeko jaien alde	5
1. Eraso matxistarik gabeko jaiak antolatzeko prozesuaren metodologia	6
1.1. Taldean, askoz hobeto.....	7
1.2. Ideiak argi baditugu, aurrera egingo dugu.....	8
1.3. Eraso matxistak prebenitzeko funtsezko ideiak.....	10
1.4. Eraso matxistei arreta emateko funtsezko ideiak.....	12
1.5. Balantzea egitea.....	14
2. I. ERANSKINA. Jaietarako jarduteko protokoloa egiteko kontuan hartu beharrekoa	15
Protokolo eredia	16
2.1. Nork sinatzen du?.....	16
2.2. Zergatik protokoloa?.....	16
2.3. Egiturak.....	17
2.4. Erantzun-agertokiak.....	17
2.5. Jarduketan balantzea eta hedatzeko moduak.....	18
3. II. ERANSKINA. Emakumeen aurkako eraso matxistarik gabeko jaien alde	19
Eraso matxistarik gabeko jaien alde	20
3.1. Zergatik da garrantzitsua erasoen aurrean jardutea?.....	21
3.2. Zer egin dezakegu eraso horiek prebenitzeko?.....	21
3.3. Egin diezaiogun aurre bortxaketaren kulturari!.....	21
3.4. Zer egin eraso matxista baten aurrean?.....	22
4. III. ERANSKINA. Sexu-erasoak mendekotasun kimikoarekin	25
Mendekotasun kimikoa	26
4.1. Sexu-erasoa mendekotasun kimikoarekin.....	26
4.2. Mendekotasun kimikoaren susmoarekin lotutako sintomak.....	27
4.3. Sexu-indarkeriaren susmoa mendekotasun kimikoaren pean.....	28

Sarrera

Honako gida hau gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko Beldur Barik programaren baitakoa da. Programa hori Emakundek sustatzen du eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin eta EUDELekin Berdinsarea Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako euskal udalerrien sarearen bidez elkarlanean egin da. Programa hau etengabe ari da eraldatzen eta zabaltzen, eta bertan parte hartzen duten pertsona eta erakundeen beharrietara egokitzen doa.

Beldur Barik programaren bidez, nesken ahalduntzea indartzea eta mutilekin jarrera sexistak prebenitzea dute helburu beratu sustatzen duten erakundeek; eraso sexisten aurrean rol aktiboa izatera animatzen ditu. Aldi berean, herritar guztiei dei egiten die emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzen laguntzeko.

Eraso matxistarik gabeko jaien alde

COVID-19 pandemiaren ondoriozko murrizketekin bi urte igaro ondoren, itzuli da kaleko aisialdia, elkarrekin aisialdiaz gozatzeko aukera; bueltan dira, baita ere, herri eta hirietako jaiak. Jaiak askatasunez eta guztiak errespetatuz goatzea nahi dugu. Horretarako, beharrezkoa da erakundeek indarkeria matxista prebenitzeko politikak indartzeko konpromisoa hartzea, jai-espazio inklusiboak eta indarkeriarik gabekoak sortzeko baldintzak bermatzeko.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebentzioa eta sentsibilizazioa eta biktimei arreta emateko koordinatzea lehentasunezkoak dira Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen jardunean, Foru Aldundiekin eta udalerriekin koordinatuta. Erakundeen arteko lankidetzaren esparru horretan, eta herrietako jaiari dagokienean, indarkeria matxista prebenitzeko eta horri erantzuteko protokoloak osatu dira azken urteotan. Badugu nondik abiatu. Hala ere, eta jaiak berriz itzuliko diren honetan, beharrezkoa iruditzen zaigu lan hori ohiko den lekuetan indartzea eta hain garatuta ez dagoen lekuetan sustatzea.

Gida honen helburua da herrietako jaiak antolatzen dituzten pertsoneri jarraibideak eskaintzea, eraso matxistarik gabeko jaiak gozatzeko laguntzeko prozesuak sustatu edota indartzeko.

Emakumeek, maiz, bakarrik jardun dute lan horretan, eraso matxistengandik defendatzera behartuta, bakarrik edo kolektiboki, baina beti emakumeen artean (lagun-taldean, berau baita babesten duena, laguntzen duena, informazioa eta aholkuak ematen dituena). Indarkeria matxistako egoerak identifikatu, aurre egin eta salatzeko tresna gehiago eta hobeak ematea beharrezkoa bada ere, argi izan behar dugu ez dagokiela haiei bakarrik, ez norbanakoei, ezta kolektiboari ere, eraso horiek prebenitzea. Lan horretan herritar guztiok eta, bereziki, erakundeek jardun behar dugu. Hori dela eta, Udalei, jai-batzordeei eta jaiak eta ekitaldiak antolatzeko prest dagoen herritar orori proposatzen diegu kontuan izan dezatela jaiak emakumeentzako espazio seguruak izan behar dutela beti.

Jarraian, metodologia bat eta hainbat helburu proposatzen ditugu, eraso matxistak prebenitzen dituzten jaiak antolatzen laguntzeko.

1. Eraso matxistarik gabeko jaiak antolatzeke prozesuaren metodologia

Udalerri guztiek, txikiek zein handiek, beren jaiak antolatzen dituzte eta horiek antolatzeke modua dute. Udalerri guztiei begira, tresna garrantzitsu bat gehitzea proposatzen dugu:

Zure herriko jaiak antolatzeke betaurreke moreak janztea erronka handia da. Alkatea, jaietako zinegotzia, gobernu-taldeak izendatutako pertsona edo elkarte, edo jaiak antolatzeke batzordean parte hartzen duen pertsona bazara, horixe da egin beharreke lehenengo gauza: betaurreke moreak jantzi eta neurrira ipintzea, eraso matxistarik gabeko jaiak antolatzen laguntzeke.

Zure udalerrian ildo horretako neurriak abian baldin badaude, une egokia izan daiteke horiek berrikusi eta alderdi hori indartzeko.

Ikus dezagun zertan datzan betaurreke horiek kolektiboan erabiltzea. Horretarako, metodologia bat aurkeztuko dugu, eta jarraitu beharreke bost urrats:

- Jaiak prestatzeke prozesu parte-hartzaileak sustatzea.
- Eraso matxistak zer diren definitzea.
- Eraso matxistak prebenitzeko funtsezko ideiak.
- Eraso matxistei arreta emateke funtsezko ideiak.
- Egindako lanaren balantzea egitea.

1.1. Taldean, askoz hobeto

Eraso matxistarik gabeko jaiak antolatzeko, garrantzitsua da Udalak ziurtatzea jaiak antolatuko dituen jai-batzordea edota -entitatea askotarikoa eta plurala dela, eta honako hauek ordezkaturata egotea:

- Hainbat udal-alor: gazteria, kultura, euskara, kirola, parte-hartzea...
- Kolektibo feministak, emakume-taldeak...
- Edozein motatako udalerriko elkarteak.

Zure herrian ez dago kolektibo feministarik?

Ziur badagoela emakume aktibo talderen bat edo talde informalen bat, Martxoaren 8a edo Azaroaren 25a antolatzeko proposamenak egiten dituen. Gonbidatu talde horiek, elkarteak ez badira ere, baita eraso matxistarik gabeko jaiak antolatzeko konpromisoa duten emakume norbanakoak ere.

Zure herrian badago kolektibo bat baino gehiago, baina horietakoren batek ez du nahi Udalarekin batera parte hartu?

Gonbidatu kolektibo guztiak. Haiek erabakiko dute parte hartu nahi duten ala ez.

Pertsona askok parte hartzen dute eta zaila da ados jartzea?

Ziur hori gertatuko dela, baina iritzi ezberdinak izatea ohikoa da eta kudeatu egin behar da. Denen artean adostutako pertsona bat izenda dezakezue, bilerak dinamizatzeko eta akordioetara heltzen laguntzeko.

Udalean berdintasun-teknikaririk edo berdintasun-atalik badago, ziur aski hark jakingo du zer den elkarrekin lan egitea, kontsentsuak lortzea eta akordioetara iristea.

Ez badago berdintasun-teknikaririk, edo ez badago jaiak antolatzeko arduradunik, berdintasunean prestakuntza duen Udaleko beste pertsona batek har dezake leku hori. Oso herri txikia baldin bada, Emakunderi, Foru Aldundietako berdintasun-sailei edo EUDEL-en berdintasun-teknikari bati eska dakieke lan hori egitea.

Akordioetara iristea zaila izango dela uste bada, edo ez badago bilerak dinamizatzeko inor edota prozesu parte-hartzailea eta neurriak abiaraztea ziurtatzeko denbora gutxi badu, kanpoko pertsona edo entitateren bat hauta daiteke, prozesu parte-hartzaileak ikuspegi feministatik kudeatzen aditua den norbait.

Prozesu parte-hartzaileak sustatzeko formula edozein delarik ere, kontuan hartu honako orientabide hauek:

Jaiak antolatzeako lan-bilerak dinamizatzeko gomendio batzuk

- Gomendagarria da hasieratik ezartzea zein izango den bileraren iraupena.
- Ziurta ezazu bilerako denek ematen dutela haien iritzia, eta inork ez duela denbora bereganatzen.
- Erabaki garrantzitsuak hartu behar direnean, denei galdetu zein den haien iritzia.
- Argi identifikatu proposamenak eta bilatu bat datozen puntuak.
- Akordiorik ez dagoen puntuetan, animatu bakoitzari berea arrazoitzera, jarrerak gerturatzea posible den jakiteko.
- Funtsezko puntuetan, denbora gehiago eman pentsatzeko, erabakiak presarik gabe hartzeko.
- Bilera amaieran, adierazi zeintzuk diren akordioak eta zereginak.
- Egin akordioen eta zereginen jarraipena.

1.2. Ideiak argi baditugu, aurrera egingo dugu

Betaurreko moreak behar bezala janzteko, jai-batzordean eraso matxistei buruzko prestakuntza bat antolatzea proposatzen dugu. Helburua da Udaleko teknikariek eta batzordean parte hartzen duen elkarte eta pertsonekin batera ezagutzea horiek identifikatzen, prebenitzen eta arreta ematen.

Prestakuntza hori aurretik jaso baldin bada, berau eguneratzea proposatzen dugu, izan halako espazio batean lehenbizikoz parte hartzen dutenentzat, zein gai horiek gogorarazi edo eztabaida sortu dezaketen alderdi batzuetan sakontzeko.

Ez da nahikoa jaiak antolatzen ari direnek ideia orokorra izatea, eraso matxistak zer diren hobeto jakin behar dute, eta horiek jaietan nola adierazten diren ezagutu.

Hori dela eta, garrantzitsua da hasierako hainbat bilera jaiak antolatzen ari diren pertsona guztiak prestatzeko hartzea.

Berdintasun-teknikaririk baldin badago, berak antola dezake aipatu prestakuntza. Halakorik ez baldin badago, jaietarako arduraduna izango da prestakuntza hori antolatzeaz arduratuko dena.

Jaiak antolatzen dituzten pertsonen prestakuntza ez da plano teorikora mugatu behar; garrantzitsua da erabakitzea zein izango diren erabiliko diren materialak, edo zein jarduera antola daitekeen eraso matxistak prebenitzeko. Halaber, prestakuntzak lagundu behar du eraso matxistarik gertatzen den unean nola jokatu behar den jakiteko.

Horrez gain, jaietan erasorik gertatzen bada nolako erantzun publikoa emango den zehazteko balio behar du.

Prestakuntza-prozesu horren emaitza izan litezke gerta daitezkeen eraso matxisten **arretarako protokoloa** eta horien **erantzun publikorako** protokoloa.

ARRETARAKO PROKOLOA

Eraso matxista baten biktimei arreta emateko **prozedurak** eta baliabideak adierazten ditu.

ERANTZUN PUBLIKORAKO PROKOLOA

Eraso matxista bat gaitzesteko arduradun politiko eta teknikoek herritarrei proposatzen dizkien **jarduketak** adierazten ditu.

Garrantzitsua da tabernariak eta txosnetako langileak ere eraso matxistak prebenitzeko prozesuan kontuan hartzea, eta jaiak hasi baino lehenagoko jarduerak planifikatzea. Haiekin batera honako hauek egin daitezke: prestakuntza-saioak antolatu, adostutako prebentziorako neurriekin material informatiboa egin, eta jarduteko protokolo bat eraso matxistak detektatzen diren kasuetarako. Gida honen eranskinean, taberna eta txosnekin lantzeko materiala aurki dezakezue.

1.3. Eraso matxistak prebenitzeko funtsezko ideiak

Jaiak antolatzeko prozesuaren uneren batean, adostu egingo da zein material erabiliko den eraso matxistak prebenitzeko. Horretarako, hainbat neurri daude, eta horretarako materialak eginda baldin badaude aurretik, horiek berrikusi eta eguneratu daitezke. Lehenengo aldiz egin behar badira, erreferentziak bila ditzakezue Beldur Barik programaren webgunean (beste urteetan egindakoa ezagutzeko). Halaber, Beldur Barik programako idazkari teknikoei ere kontsulta egiteko aukera duzue.

Tokiko prozesu horiek laguntzeko, honako tresna hauek dituzue eskuragarri:

- Jaietan indarkeria matxista prebenitzeko tokiko prozesuak egiteko jarraibide-gida.
- Jaietan jarduteko protokoloak barne hartu beharreko elementuen eranskina.
- Taberna eta txosnekin lantzeko jarraibideen eranskina.
- Eraso matxistak identifikatzeko gida.
- Kartelak.

Garrantzitsua da ziurtatzea material guztietan argi datozela azalduta jaietan eraso matxistei arreta emateko funtsezko ideiak. Hona hemen batzuk:

Eraso matxistak prebenitzeko funtsezko ideiak

- Jaiak guztiontzako espazioa dira, adin eta baldintza guztietako pertsonentzat, eta bermatu egin behar da guztiek berdintasunean eta indarkeriak gabe bizi dituztela.
- Erasoaren erantzukizuna erasotzailearena da.
- Alkoholak edo drogek jarrerak desinhibitzen dituzte, baina ez dituzte sortzen. Alkohola edo dragak kontsumitzeak ez du eraso justifikatzen, ezta molestatzeko asmorik ez zuela esateak edo jaietan, desfaserako espazioa edo kontrola galtzen den espazioa izanik, denek egiten dutela argudiatzea ere.
- Emakumeek nahi duten moduan dute ongi pasatzeko eskubidea. Jaiez gozatzeko moduek, ezta haien jarrera edo egoerak ere, ez dute erasorik justifikatzen.

- Jaiak harreman berriak sortzeko espazioa dira, zalantzarik gabe, baina denek onartu behar dute harreman hori.
- Ezetz esatea, beti da ezetza! Beste era batera ere esan adieraz daiteke: Utz nazazu bakean!, Ez dut jarraitu nahi, Nire lagunengana itzuli nahi dut, Horrela ez!...
- Ezezkoa ahoz adieraz daiteke, baina baita gorputzaren bidez ere.
- Ez ezazu esan ez zenekiela, edo garbi ez zeneukala. Ezezkoa modu askotan adierazten da. Ez zaitez tematu.

1.4. Eraso matxistei arreta emateko funtsezko ideiak

Jaiak antolatzerakoan, planifikatu egingo da zeintzuk diren eraso matxista gertatzen den unean abian jarriko diren baliabideak.

Egoera horietan kontuan hartu beharreko baliabide batzuk honako hauek dira:

- 112 larrialdietarako telefono-zenbakia.
- 900 840 111 telefono-zenbakia, eguneko 24 orduetan dei daiteke, eta bertan informazioa eta laguntza eskatu.
- Herrian bertan aktiba daitekeen telefono-zenbakia.
- Informazio-puntuak, berehala emateko arreta eraso matxista jasan duen emakumerik.

Herrian telefono-zenbaki eta informazio-puntu bat jartzea erabakitzen bada, kontuan hartu honako hau:

Eraso matxistei arreta emateko funtsezko ideiak

- Zerbitzuaz arduratuko den pertsona prestatuta egongo da erantzun egokia eta azkarra emateko.
- Telefono-zenbakia eta informazio-puntua aldeztu aurretik iragarriko dira, eta ziurtatu egin behar da taberna eta txosna guztiek dutela informazio hori.
- Argi eta garbi adieraziko da telefonoaren arreta-ordutegia, eta informazio-puntua irekita egongo den ordutegia.
- Zerbitzuaz arduratuko den pertsonak argi eta garbi jakin behar du zeintzuk diren erabil ditzakeen baliabideak, biktimari behar bezalako arreta emateko.
- Oso garrantzitsua da ziurtatzea zeregin horretan arituko diren pertsonen nahikoa ezagutza dutela kasu hauetan jarraibideak emateko.

Arretarako lanak egiteko baliabidea edozein delarik ere, arretarako protokoloan argi eta garbi adieraziko da zein den jaien antolakuntzan parte hartzen dutenen zeregina, zein izango den komunikatzeko modua, komunikaziorako telefono-zenbakia eta helbideak eta, orokorrean, zeintzuk izango diren eraso matxistaren biktimak babesteko sareak funtzionatzeko beharrezko prozedurak.

GARRANTZITSUA!

- Eraso jasan duen pertsonak erabakiko du beti zer egin behar den. Adinez nagusia bada, informazioa emango zaio, ongi dagoela eta etxera behar bezala iritsi dela ziurtatuko da; bere erabakia errespetatuko da.
- Unean bertan erabakitzen badu salaketarik ez jartzea, ez du esan nahi ez duela erasorik jasan edo eraso ez dela larria izan. Esan nahi duena da hori dela uneko bere erabakia. Beranduago jarri dezake salaketa.
- Unean bertan ez salatzea erabakita ere, herritarrek erantzun dezakete eraso matxistaren aurka. Kasu horretan, beti babestuko da biktimaren intimitatea, eta erasoaren kausa orokorrak gogoraraziko dira, eraso matxistek kontrolerako duten funtzioa.
- Adin txikiko neskek ere paira ditzakete eraso matxistak, eta adin txikiko mutilak ere izan daitezke erasotzaileak. Kontu handiz aritu behar da egoera horietan, batoren zein bestearen identifikazioa babestuko da eta denen familiekin jarri beharko da harremanetan, beharrezkoa den laguntza emateko. Kasu horietan, garrantzitsua da adin txikikoen interes gorena defendatzea, Udalak erantzun publikorik ez egiteko baloratzea, eta hala gomendatzea beste eragileei. Gertaera sare sozialen bidez zabaldu baldin bada, adin txikiko horiei eta haien familiei arreta indartuko da, eta haien iritzia kontuan hartuko da erabakiak hartzerakoan, egoera ahalik eta hoberen kudeatzeko.

1.5. Balantzea egitea

Jaiak amaitutakoan, eta musika oraindik belarrietan dugula ere, funtsezkoa da eraso matxisten inguruan gertatutakoaren balantzea egitea, horrek zein eragin izan duen ezagutzea eta horri zein erantzun eman zaion jakitea. Behar bezalako balantzea egiteko, garrantzitsua da hori egiteko arduradun bat izendatzea; berdintasuneko edo kulturako teknikaria izan daiteke, jaietarako arduraduna edo udal-batzorde bat. Ez badago udal-mailako langilerik, kanpoko norbait kontrata daiteke, txosnetako, tabernetako arduradunen, ekitaldietako arduradunen edo jai-batzordeko parte-hartzaileen informazioa jaso dezan.

Balantzean honako datu hauek jasoko dira:

1. Osatutako prebentziorako material motak eta horien irismena.
2. Materialek izan duten harrera, publikoaren arabera.
3. Detektatutako eraso matxista kopurua, eta nortzuk izan diren detekzio-lan hori aktiboen egin duten pertsonak.
4. Zenbat pertsonak eskatu dute informazioa arreta-puntuan, telefono-zenbakian edo eskura jarritako baliabidean.
5. Zenbat pertsonak eskatu dute laguntza arreta-puntuan, telefono-zenbakian edo eskura jarritako baliabidean.
6. Zein erantzun eman zaien eskaera horiei.
7. Arretarako protokoloaren funtzionamendua.
8. Erantzun publikorako protokoloa zenbat aldiz aktibatu den eta zein eragin izan duen.
9. Protokoloek behar dituzten hobekuntzak.
10. Jaiak antolatu dituen taldearen ikaskuntzak.

Garrantzitsua da balantze hori herritarrei nolabait ezagutaraztea, haiek ere jakin dezaten nola joan diren herriko jaiak eta nola jardun duen Udalak.

Balantze hori garrantzitsua da, baita ere, beste Udalekin partekatu beharreko Jardunbide Egokien parte ere izan daitekeelako.

Jaiak guztiok egiten ditugu. Eraso matxistak nola prebenitzen ditugun eta horien aurrean nola jarduten dugun moduak definituko du gure aisialdiko espazioen kalitatea.

2. I. ERANSKINA

Jaietarako jarduteko protokoloa egiteko kontuan hartu beharrekoa

Protokolo eredia

Hainbat eredu daude, udalerraren beharrezanen edo jaien tamainaren arabera. Eredu batzuk eskuragarri egon daitezke tresna mota horiek landu dituzten Udalen webguneetan.

Baliteke eredu horietan jarduteko bi protokolo egotea: bata erasoari arreta emateari buruzkoa, eta bestea herritarrek erasoaren aurrean egiteari buruzkoa. Baliteke bi kasu horiek protokolo bakarrean jasotzea.

Beste aukera bat da jarduteko protokolo hori erasoaren aurrean jarduteko eta erantzuteko beste protokolo zabalago baten parte izatea, eta jaietarako jarduketak atal batean zehaztuta egotea; edo jaietarako berariazko bat ere izan daiteke.

Udalerri bakoitzean jarraitu beharreko eredia edozein delarik ere, honako alderdi hauek barne hartuko ditu protokoloak:

2.1. Nork sinatzen du?

Berriaz adieraziko da protokoloa osatzen parte hartu dutenak eta, baita ere, jarraipena egiteko eratuko diren egituretan parte hartzeko konpromisoa dutenak.

2.2. Zergatik protokoloa?

Garrantzitsua da azaltzea zergatik egingo den jarduketa hori, eta proposatutako jarduketan arau-esparrua gehituko da. Arau-esparru horrek, Estatu mailako zein erkidego mailako arau orokorrak zehazteaz gain, foru-arauak edo udal-ordenantzak ere (halakorik badago) zehaztuko ditu.

Atal horrek ez du zertan luzea izan behar, baina argi adieraziko dira aipatu araudiak. Herritarrek argi izan behar dute protokoloa proposamenek, atzean, kontzeptualizazio bat eta indarrean dagoen legedia dituztela.

2.3. Egiturak

Behar bezala azalduko da zeintzuk izango diren protokoloa betetzeko egiturak. Egitura egonkorrak izan daitezke, edo jaietarako berariaz eraturakoak.

Protokolo batzuetan jarraipenerako batzorde edo jai-batzorde deitzen zaie. Izena adierazteaz gain, honako hau ere adieraziko da:

- Zeintzuk osatzen duten egitura: hobeto da argi eta garbi zehaztea zein den pertsonaren kargua. Adibidez, kulturako teknikari arduraduna adieraztea, kultura-alorra adierazi beharrear.

Protokoloan egitura arduradunaren osaera argitaratzeaz gain, garrantzitsua da, barne-mailan, direktorio bat edukitzea, eta hori jai bakoitzean eguneratzea.

- Zein zeregin ditu egiturak.
- Noiz funtzionatuko du egiturak.

2.4. Erantzun-agertokiak

Agertokiak deituko diegu jardungo den egoera horiei. Garrantzitsua da erantzunak eraso motaren arabera bereiztea.

Protokolo batzuek erantzuna behar duten eraso-agertokiak bereizten dituzte: ez dituztenak biktimaren edo biktimen integritate fisiko edota emozionala arriskuan jartzen eta horiek arriskuan jartzen dituztenak.

Beste protokolo batzuetan, jarduketak larrigarrien arabera daude zehaztuta, adibidez, taldeko erasoak, adin txikiko biktimak, edo sumisio kimikoa.

Agertoki horiek adostasun handiagoa eskatzen dute, horien aurrean nola erantzungo den definitzeko.

Agertoki bakoitzean adieraziko da:

- Eraso mota bakoitzaren **definizioa**.
- **Jarduketak**: izan jaiak ospatu bitartean, zein jaiak amaitzean, hala egitea erabakitzen bada. Jarduketak urratsez urrats definituko dira.

Jarduketan artean, bi nabarmenduko dira:

BIKTIMEI ARRETA EMATEA ETA ERANTZUN PUBLIKOA

- Biktimen arretarako neurriak esplizituki azalduko dira, baita arreta hori egiteko baliabideak ere. Jarduketa hori lehentasunezkoa da, hau da, biktimaren beharrezan behar bezalako arreta ematea barne hartzen ez duen erantzun publikoak ez du zentzurik.
- Erantzun publikoak biktimen anonimotasuna babestu behar du: eraso gaitzetsi eta berau jasan dutenen datuak babestu behar dira.
- Erantzun publikoa deitzeko bitartekoak zehaztuko dira edota dagokion adierazpena argitaratuko da.
- Erantzuteko epeak: ordutan zehaztuko da, jaiek gutxi irauten baitute.
- Zein lelo erabiliko den zehaztuko da, halakorik erabiltzea erabakitzen bada.
- Aurrez, adierazpen instituzionaletarako eredu batzuk idatziko dira.

2.5. Jarduketan balantzea eta hedatzeko moduak

Aurrez aipatu moduan, garrantzitsua da egindako jarduketan balantzea egitea, eta protokoloan adieraziko da informazio hori herritarrei nola jakinaraziko zaien.

3. II. ERANSKINA

Emakumeen aurkako eraso matxistarik gabeko jaien alde

Taberna eta txosnekin lantzeko jarraibideak.

Eraso matxistarik gabeko jaien alde

- Emakumeen aurkako eraso matxistak emakumeen aurka eta hauek emakume izateagatik egiten diren jokabideak dira.
- Erasoren horiek ez dira ustekabekoak edo bakanak, badute funtzio sozial bat: espazio publiko eta pribatuetan emakumeen jarrera kontrolatzea, eta haien mugikortasuna eta askatasuna mugatzea.
- Adibide batzuk dira: aintzat ez hartzea, iraintzea, umiliatzea, kritikatzeko, pertsonen itxura fisikoa ebaluatzea edo kritikatzeko; nahi ez den kontaktu fisikoa, hala nola igurtzea edo ukitzea; jarraitzea, behin eta berriz saiartzeko edo jazartzeko; deserosotasuna eta beldurra eragiten duten bestelako jokabideak.

**Emakumeak ez dira beldurriak jaiotzez:
irakatsi egiten zaie erasoaren beldur izaten eta
haien jarrerak eragiten dituztela sinesten.**

- Sexu-erasoak pertsona baten sexu-askatasunaren aurkako edozein jokabide dira. Sexu-harremana adostasunik gabe egiten bada, ezin da esan baimenarekin egin dela.
- Erasoa indarkeriaz egin daiteke, baina adostu gabeko harremana ere eraso da.
- Adibide batzuk: ukitzea, exhibizionismoa, nahiaren aurka hurbiltzea, sexua izateko norbait presionatzea, bortxatzea.

**Erasoak ezin dira alkohola edo drogak kontsumitu direlako
justifikatu, ezta biktimaren bizimoduagatik, janzteko moduagatik edo
erasotzailearekin sexu-harremanak edukitzeagatik justifikatu ere.**

Erasoaren erantzule bakarra erasotzailea da.

3.1. Zergatik da garrantzitsua erasoen aurrean jardutea?

Barraren atzean lanean edo jendeari arreta ematen zaudetenak funtsezko elementua zarete eraso matxista bat prebenitzeko, detektatzeko eta lehenengo arreta eskaintzeko. Hori dela eta, zuen laguntza ezinbestekoa da guztiek askatasunez gozatzeko jai-espazioak sortzeko.

3.2. Zer egin dezakegu eraso horiek prebenitzeko?

- Giro atsegina eta errespetuzkoa sortzea, emakumeentzako seguruak izango direnak.
- Jaiak ospatzen diren lekuak eta udalerriko espazio publikoak emakumeentzako espazio seguruak direla ziurtatu behar da: komunak leku argitsuetan eta jendea pasa ohi den lekuetan ipintzea, udalerriko espazio arriskutsuetan argiak jartzea, edo bestelako edozein neurri har daiteke, emakumeek jaietz berdintasunean gozatu dezaten eta seguru senti daitezten etxetik irteten direnetik etxeraten direnera arte.

3.3. Egin diezaiogun aurre bortxaketaren kulturari!

Bortxaketaren kulturak sexu-indarkeriarekin lotutako **jarrerak**, edo ezinbestean aisialdiko espazioekin lotzen dituztenak, **normalizatzen dituzten praktika sozialak** dira.

Zer egin dezakegu jai-espazioetan indarkeria horren aurka egiteko?

- Ez erabili emakumeak umiliatu, kosifikatu edo umiltzen duen lengoaiarik. Berrikusi karteletako mezuak edo adierazi argi eta garbi lokalean ez direla portaera matxistak onartuko.
- Ez banalizatu sexu-indarkeria azalpenetan, txantxetan edo mezuetan. Halako mezuak zure mugikorrera heltzen badira, ez itzazu birbidali.
- Ez ezazu erasoak jasan duen emakumearen portaera edo egoera epaitu. Edonola ere, emakumea ez da erasoaren erruduna.
- Argi eta garbi mugatu zer den elkarren artean adostutako sexua izatea, edo nahiaren aurka egindako sexu-hurbilpena.
- Publikoki gaitzetsi esamolde matxistak eta emakumeentzako umiliagarriak diren txistek erabiltzen dituzten pertsonen jokaera.
- Geldiarazi piropoz mozorrotutako erasoak, eskatu GABEKO iritzia emateko askatasuna dutela uste dutenek egiten baitute.

Kontuan izan behar da beti...

- EZETZA ez ematea ez da BAIEZKOA ematea.
- "Ez dut jarraitu nahi" esaldiak EZETZ esan nahi du.
- Bortxaz edo beldurrez emandako BAIEZKOAk EZETZ esan nahi du.
- Zalantza egiteak ez du BAIETZ esan nahi.
- Baliteke hasieran BAIETZ esatea, baina harremanaren edozein unetan alda daiteke iritzia, eta hori errespetatu egin behar da.
- Emakume batekin dantza egiteak ez du esan nahi haren gorputza sexualki ukitzeko baimena ematen duenik, hala adostu ez bada.
- Kontziente ez den edo egoera txarrean dagoen emakume batekin sexua praktikatzea hura bortxatzea da.
- Sexu-harremanak izaten ari den emakume bat grabatzea, edo bideo hori bere baimenik gabe zabaltzea haren intimitatea bortxatzea da eta, gainera, delitua da.

3.4. Zer egin eraso matxista baten aurrean?

- Emakume bat arriskuan dagoela uste baduzu, galdetu laguntzarik behar duen, eta ez utzi bakarrik egoera horretan. Beharrezkoa dela uste baduzu, Udaltzaingoari, Ertzaintzari edo SOS Deia deitu.
- Argi eta garbi esaiozu erasotzaileari haren jokaeraren aurka zaudela.
- Lokal batean gertatzen baldin bada, musika itzali eta argiak piztu ditzakezu Hala lokalean daudenek jakin dezaten zer ari den gertatzen.
- Ez utzi bakarrik emakumea, hark hala eskatzen badizu edo zure laguntza behar duela uste baduzu.
- Galdetu ea arreta medikorik nahi duen, edo gertaera salatu nahi duen. Errespetatu beti bere erabakia.

Emakume batek eraso jasan duela esan eta laguntza eskatzen badizu, edo eraso bat gertatu dela baldin badakizu:

- **Ez epaitu.** Ez da baloraziorik egiteko unea, ezta egoera leuntzekoa ere. Ez ezazu haren hitza zalantzan jartzen duen galderarik egin:

“Ziur zaude horrela gertatu dela?”, “Ez zara ari esajeratzen?”,
“Zertan ari zinen erasoaren unean?”, “Ez zenuen gaizki ulertuko?”
“Gertuegi ari zinen dantzan!”, “Nahi duzulako joan zara”, etab.

- **Ez ezazu behartu edo presionatu eraso jasan duen emakumea:**

“Salatu egin behar duzu!”, “Zer gertatu da?”, “Nor izan da?”

- **Ez ezazu bakarrik utzi.**
- **Ez ezazu erabakirik hartu haren baimenik gabe.**
- **Ez ezazu gertatutakoaren inguruko datu edo informaziorik zabaldu,** eraso jasan duen emakumeari nola eragin diezaiokeen pentsatu aurretik.
- **Enpatia eta laguntza eskaini.** Esaiozu ez dagoela justifika daitekeen erasorik, eta bera ez dela gertatutakoaren erantzulea:

“Nola zaude?”, “Zertan lagun zaitzaket?”,
“Ez duzu ezer txarrik egin”.

- **Lasai egon zaitetz berarekin.**

- **Errespetatu haren denbora** eta erabakiak.

“Zer nahi duzu egin?”, “Hemen nago laguntzeko”, etab.

- Saiatu **bilatzen bere konfiantzako norbait**, berarekin egon dadin. Ez baduzu inor aurkitzen, gelditu zaitetz berarekin behar duen bezainbeste.
- Zerbitzuren bati deitu edo beste urrats bat eman baino lehen, **galdetu iezaiozu**.

SEXU-ERASO/BORTXAKERAREN AURREAN

Emakumeak ez badaki ere gertatutakoa salatu nahi duen ala ez, azaldu iezaiozu frogak ezaba daitezkeela dutxatzen bada, jaten badu edo arropaz aldatzen bada. Normala da hori egin nahi izatea, zikin sentitzen delako, baina sentsazio horixe da erasotzaileak helarazi nahi izan diona, eta erasoaren parte da.

Emakumea zaurituta baldin badago, edo arreta medikoa behar baldin badu, esaiozu larrialdietarako zerbitzu medikoen derrigorrez bidali behar dutela parte Epaitegietara.

Hori guztia azaldu ondoren, berak hartuko du erabakia, errespetatu ezazu.

4. III. ERANSKINA

Sexu-erasoak mendekotasun kimikoarekin

Azken urteetan, eta batez ere 2022ko udako jaietan, mendekotasun kimikoa duen eraso baten biktima izateko kezka zabaldu da. Zer da hau eta zer egin dezakegu horrelako eraso baten susmoa badugu?

Mendekotasun kimikoa

Droga jakin batzuek pertsonen borondatea eta kontzientzia kaltetu ditzakete, eta haien eraginpean era guztietako erasoak (sexu-erasoak barne) jasateko arriskuan geratu daitezke. Eragindako zaurgarritasun-egoera horri mendekotasun kimikoa esaten zaio.

Sumisio kimikoa aldez aurretik pentsatutako zerbait izan daiteke, hau da, norbaitek biktimari substantzia bat ematen dio bere borondatea desaktibatzeke asmoarekin. Substantzia hori edari batean edo gorputzaren zatiren batean egindako ziztaden bidez isur daiteke, jendetza, eta iluntasuna aprobetxatuz.

4.1. Sexu-erasoa mendekotasun kimikoarekin

Aldez aurretik pentsatutako sumisio kimikoa emakume bati sexualki erasotzeko erabiltzen denean, muturreko indarkeria matxista mota bat da, kasu hauetan biktimen erresistentzia mota guztiak gainditzen direlako, eta erasotzaileen eraginpean geratzen direlako erabat. Gogoratu behar da, beste sexu-eraso batzuetan bezala, kasu askotan erasotzaileak biktimaren lagunak edo ezagunak izaten direla, eta, beraz, ez dela nahikoa eta ez dela eraginkorra emakumeei eskatzea alkoholaren eta drogen kontsumoa mugatzeko edo edalontziak estaltzeko.

Erasotzaileak dira erabakitzen dutenak horrela jokatzeko biktimaren zaurgarritasuna areagotu egiten delako, eta emakume bat beren borondate absolutuaren pean izan dezaketela uste dutelako. Sexu-erasoak beti betetzen du emakumeak kontrolatzeko funtzioa, haien mugikortasuna eta askatasunaren kontrola bilatzen du beti, eta mendekotasun kimikoa kontrol horren muturreko erakusle bat da.

4.2. Mendekotasun kimikoaren susmoarekin lotutako sintomak¹

- Trakets hitz egitea
- Ikusmen-alterazioak
- Logura
- Nahastea
- Desinhibitzea
- Urduritasuna edo haluzinazioak (delirium)
- Zentzu aldaketa
- Zorabioa edo bertigoa
- Motrizitatearen edo orekaren alterazioak
- Goragaleak edo botaka egitea

Baliteke alkohola eta drogak nahita hartzeak sintoma horietako batzuk ere eragitea, baina intentsitate handiagoarekin eta/edo ziztada baten ondoren edo sustantzia kimikoren batekin nahastutako edariren bat hartzearekin gertatzen badira, mendetasun kimikoa dagoela pentsa daiteke, eta horrek sintoma larriagoak eragiten ditu, hala nola, konortea galdu gabeko paralisia edo konortea erabat galtzea.

Erne egon behar da sintoma horiek agertzen direnean, eta abisatu, baldin eta emakumeren bat sintoma horietakoren bat izaten hasten bada. Ez da arriskua baztertu behar pentsatuz alkoholak eragindakoa dela, batez ere sintomen eta kontsumoaren arteko proportzioa betetzen ez dela ikusten bada.

¹ Hemendik egokitua: Guía de Buenas Prácticas, or.

4.3. Sexu-indarkeriaren susmoa mendekotasun kimikoaren pean²

Mendekotasun kimikoa sexu-eraso baten atarikoak izan daiteke. Hurrengo sintomak ohartaraz diezazukete zu edo zure jai-kideren bat egoera horretan egon dela³:

- Sexu-eraso baten biktima izanaraen oroitzapena
- Sexu-izaerako zerbait gertatu dela sentitzea
- Biluzik edo arropa biluziarekin esnatzea
- Kontzientekin azaldu ezin diren fluidoak (adibidez, semena) edo objektuak (adibidez, preserbatiboa) aurkitzea.
- Mina, alterazioak edo lesioak izatea ahoan, uzkiean edo genitaletan.
- Lesioak izatea (adibidez, higadurak edo ekimosia)
- Ezezagun, ezagun edo lagun bat alboan duzula esnatzea leku ezezagun batean
- Azken oroitzapen bezala izatea ezezagun, ezagun edo lagun horrek esan zizula etxera eramango zintuela eta beste leku batean agertzea.

Konfiantzazko pertsonak esan badizute egoera arraro edo konprometigarri batean ikusi zaituztela, ezer edo ia ezer gogoratzen ez baduzu (amnesia osoa edo partziala), edo erresaka neurrigabea edo kontsumoarekin bat ez datozen sintomak agertzen badira, ez izan zalantzarik, jarraitu jarraibide hauek:

Parrandan zauden bitartean

- Gorputzeko edozein lekutan ziztada bat nabaritzen baduzu, lehen aipatutako sintometako bat agertzen bada, esan berehala zure lagune, kontatu zer gertatu zaizun eta zer sentitzen ari zaren, eta deitu 112ra.
- Lagunen batek ziztadaren bat sentitu duela esaten badizu edo lehen aipatutako sintomaren bat duela ikusten baduzu, ez kendu garrantzirik informazio horri, ez utzi bakarrik eta berak ezin badu, deitu zuk 112ra berehala.

² Sexu-erasoen kasuetarako osasun-jarduerari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, Euskadin genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko gida kontsulta daiteke. Gida osoan, atal hau 75-84 orrialdeetan dago. Esteka honetan, prozedura horietara sar zaitezke zuzenean.

https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/guia_violencia_genero/es_def/adjuntos/guia_vg_es-75-84.pdf

³ Hemendik egokitua: Guía de Buenas Prácticas, or.

- Ez joan leku bakarti batera, sentrazioa pasatzeko, eta saiatu norbaitekin egoten. Era berean, beste pertsona bati gertatzen bazaio: berarekin batera egon beste norbaitek artatu edo lagundu arte eta deitu 112ra.
- Jakinarazi berehala zer gertatu zaizun edo zure lagunari zer gertatu zaion aisialdi-aretoko edo jaietako arduradunei, edo joan zaitez festan egon daitekeen Puntu Morera.

Aisialdiko lokal baten, txosna baten edo more baten arduraduna bazara:

- Aktibatu erasoen protokoloa jaietan, baldin baduzue.
- Deitu 112 zenbakira edo Ertzaintzari edo Udaltzaingoari, protokoloak adierazten duenaren arabera.
- Beharrezkoa bada, deitu Gurutze Gorrira edo eskura dauden osasun-zerbitzuetara, kaltetutako nesken sintomei erantzun egokia eman diezaioten.

Mendekotasun kimikoz erasotua izan zaren susmoaz esnatzen bazara:

- Ez aldatu arropa, ez garbitu, frogak gordetzen saiatu.
- Joan berehala ospitalera, zure sintomei kasu egin eta analisiak egin ahal izateko.
- Kontatu gogoratzen duzun azkena eta nola esnatu zaren, mendekotasun-protokolo kimikoa aktibatu ahal izateko.
- Aurkeztu salaketa Ertzaintzan.



**BELDUR
BARIK**